# ERREPIDEKO PROBEN ARAUDIA

**2021.02.20**

**XEDAPEN OROKORRAK**
**1. artikulua**.- Araudi honen bidez, EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAK, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Federazioekin eta haiei atxikitako klubekin eta kirol taldeekin lankidetzan, errepide-txapelketa hauek antolatu eta erregulatzen ditu: Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, **Abiatzen,** Euskal-Herria, Gaztetxoak eta Emakumeen Euskaldun Txapelketa eta Euskadiko Errepide Lehiaketak.

**2021.02.20**

**2. artikulua.-** Araudi hau aplikaziozkoa da nazioarteko (Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuna) edo nazioko (Espainiako Txirrindulari Errege Federazioa) egutegietan jaso gabe dauden errepide-txapelketetan eta Euskadiko Errepide Lehiaketetan, eta probetan parte hartzen duten pertsona guztiak biltzen ditu. Nahitaezkoa da araudi hori ezagutzea, eta ezin da inolaz ere kontrakoa alegatu.

**3. artikulua.-** Araudi honetan jasotako errepide-txapelketetako xedapen partikularrak salbu, txapelketak Espainiako Txirrindulari Errege Federazioaren araudi teknikoetan eta Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunaren txirrindularitza araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira.

**4. artikulua.-** Epaimahai teknikoak, lehenbizi, eta ETxF-k araudia aldatzeko eta haren aplikaziotik eta/edo interpretaziotik eratorritako egoerak eta ezohiko kasuak ebazteko eskubidea du, proba bakoitzeko jarduera-eremuari dagokionez.

# EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK

**XEDAPEN OROKORRAK**
**62. artikulua.-** EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren (ETxF) jabetza esklusibokoak dira.

**63. artikulua.-** Agiri honek Araudiaren Xedapen Orokorrak osatzen ditu – ETxF-ren Errepide Probak.

EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETETARAKO espresuki jasotakoa salbu, kategoria edo sexu bakoitzeko txapelketan edo sarian ezarritakoaren arabera arautuko dira txapelketak.

Emakumeentzako Euskadiko Errepideko Txapelketak – Linea ez ezik, EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK ez dira puntuagarriak izango inolako txapelketetan edo saritan.

## II. EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN MASTER 30, 40, 50, 60

**XEDAPEN KOMUNAK: LINEA ETA ERLOJUPEKO INDIBIDUALA**
**65. artikulua.-** Agiri honetan datozen xedapen partikularrez gain, EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETEK, Master 30, 40, 50 eta 60 —Scratch emakumezkoak— kategorietan, Espainiako Txirrindulari Errege Federazioko Araudi Teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

Guztiz debekatuta dago txirrindulari parte-hartzaileei saria eskudirutan ematea. Txapeldunen maillotak, sariak eta/edo dominak bakarrik jasotzeko eskubidea izango dute soilik, hala badagokio eta hemen jasotako baldintzetan betiere.

**EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETEN BANAKETA**
Kategoria hauetan banatzen dira:

- **Master 30**: txirrindulari hauen lizentzietan *Master 30* kategoria ageri da
- **Master 40:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 40* kategoria ageri da
- **Master 50:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 50* kategoria ageri da
- **Master 60:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 60* kategoria ageri da

- **Scratch emakumeak:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 30, 40, 50* edo *60* kategoriak ageri dira

**EUSKADIKO TXAPELDUNAK**
Lehen adierazitako kategoria bakoitzean, Euskadiko Errepide Txapelketako txapeldun-tituluak jaso ahal izateko, txirrindulariek espainiar nazionalitatea eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioak edo Nafarroako Txirrindularitza Federazioak igorritako lehiaketa-lizentzia eduki behar dituzte. Horiez gain, Ipar Euskal Herrian bizi diren eta espainiar edo frantses nazionalitatea dutenek ere txapeldun-titulua jaso dezakete, baldin eta Frantziako Txirrindularitza Federazioak igorritako lizentzia badute. Kasu guztietan, txirrindulariaren bizilekua lizentzian jasotzen den helbidea dela iritziko zaio.

**PARTE HARTZEKO ETA IZENA EMATEKO BALDINTZAK**
Aurreko paragrafoan adierazitako txirrindulariez gain, Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren barruko edozein federaziok igorritako lizentzia duten txirrindulariek ere parte har dezakete EUSKADIKO ERREPIDE TXAPELKETETAN, baina EZ DUTE txapeldun-titulurik jasoko.

**ZENBAKIAK**
Tokiko Batzorde Antolatzaileak banatuko ditu zenbakiak txirrindularien artean.

**SAILKAPENAK**
Kategoria bakoitzean, proba arauzko denboran amaitzen duten txirrindulari guztien sailkapen bateratua egingo da. Horrela, II. kapituluko 3. izenburuan ezarritako baldintzak betetzen dituzten txirrindularien artean, lehenengo postuan sailkatzen dena Euskadiko Errepide Txapelketako irabazlea izango da, dagokion kategorian.

Kategoria guztietan —Scratch emakumezkoak barne—, II. kapituluko 3. izenburuan ezarritako baldintzak betetzen dituzten 3 (hiru) txirrindulari egon beharko dira gutxienez; hala ez balitz, 2012ko Euskadiko txapeldun titulua hutsik geratuko da.

**ERLOJUPEKO INDIBIDUALA**

**Irteera-ordena**
Parte-hartzaileen irteera-ordena zozketa bidez ezarriko da, kategoria bakoitzean.

Txirrindulariak minutu bateko tartearekin aterako dira, eta berdin jardungo da serie bereko parte-hartzaile guztiekin.

**Bizikletak**
Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren Txirrindularitza Araudiaren III. kapituluan ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

Irteera-ordua baino hamabost minutu lehenago, txirrindulari bakoitzak irteera-epailearengana joan beharko du bere bizikletarekin batera, egiaztatzeko Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren Txirrindularitza Araudiaren 2.4.010. artikuluan ezarritakoak betetzen dituela.

**Errepideko txirrindulariak**
Aurretik doan txirrindularia harrapatu eta haren parean jartzen bada, beste txirrindulariarekin gutxienez 2 metroko distantzia utzi beharko du alboetara.

Kilometro bat pasata, harrapatua izan den txirrindulariak bestearen atzetik joan beharko du, eta 25 metroko tartea utziko du gutxienez.

**Laguntza-autoak**
Laguntza-autoak txirrindulariarekin joan ahal izateko, auto barruan kirol-zuzendari edo monitore lizentzia duen taldekide bat joan beharko da.

Autoa txirrindulariaren atzetik joango da, gutxienez 10 metroko tartea utzita. Ezingo dio inoiz aurre hartu, ezta parean jarri ere. Matxurarik balego, geldirik dagoela bakarrik lagun diezaioke, eta beste txirrindulari edo auto bati bidea oztopatzen ez diola zainduko du.

Harrapatua izango den txirrindulariaren laguntza-autoa beste txirrindulariaren autoaren atzetik joango da, bi txirrindularien arteko distantzia 100 metrotik beherakoa denean.

Txirrindulari bat harrapatu duen txirrindulariaren laguntza-autoa ezin da bi kirolarien artean joan, bien artean 50 metroko tartea ez badago gutxienez. Tarte hori txikitzen bada, ordura arte denborarik onena izan duen txirrindulariaren autoa bigarren txirrindulariaren atzean jarriko da eta beste autoaren aurrean.

# EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOKO ERREPIDEKO PROBEN ARAUDIAREN I. ERANSKINA (25. artikulua)

## NAZIOARTEKO TXIRRINDULARITZA BATASUNEKO TXIRRIDULARITZA KIROLAREN ARAUDIKO ZIGORREN ETA PENALIZAZIOEN TAULARENA

| LASTERKETAKO EKINTZAK | ZIGORRAK ETA PENALIZAZIOAK |
|---|---|
| 1.1 Sinadura kontrolik gabeko irteera | Txirrindularia: 50 CHF eta 2 puntu ETxF Sailkapenean<br>Kirol Zuzendaria: 50 CHF |
| 1.3. Protokolo zeremonietan ez parte hartzea | Txirrindularia: 200 CHF eta proban eskuratutako sarien eta puntuen ezabaketa.<br>Kirol Zuzendaria: 200 CHF |
| 1.4. Protokolo zeremonietan ez-arauzko jantzia erabiltzea | Txirrindularia: 100 CHF<br>Kirol Zuzendaria: 100 CHF |
| 1.5. Kanporatuta egotean Helmuga dortsalarekin zeharkatzea. | Txirrindularia: 200 CHF |
| 1.6. Helmuga berriro zeharkatzea lasterketaren noranzkoan dortsala jarrita. | Txirrindularia: 50 CHF |
| 2.1 Irteeran bizikleta desegoki batekin aurkeztea | Irteteko debekua |
| 2.2 Lasterketan bizikleta desegokia erabiltzea | Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa<br>Taldea: 200 CHF |
| 2.3 Lasterketan 1.3.010 artikuluarekin bat ez datorren bizikleta erabiltzea(iruzur teknologikoa) | Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa.<br>Taldea: Kanporaketa edo deskalifikazioa |
| 2.4. Lasterketan baimendu gabeko urrutiko komunikazio sistema bat erabiltzea | Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa<br>Kirol Zuzendaria: Kanporaketa<br>Taldeko Autoa: Kanporaketa |
| 2.6. Materialaren kontrola saihestea, eragoztea edo oztopatzea | Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa<br>Taldeko beste kide bat: Kanporaketa |
| 3.1. Liderraren maillota ez janztea | *Ikusi 32, 45, 53 edo 60 Artikuluak.* |
| 3.2. Jantzi desegokiak | Txirrindularia: Irteteko debekua, kanporaketa edo deskalifikazioa |
| 3.3. Derrigorrezko kaskorik gabeko txirrindularia | Irteteko debekua |
| 3.4 Probaren garapenean kaskoa kentzen duen lasterkaria | Kanporaketa eta 50 CHF |
| 3.6. Dortsal, sorbalda zenb., koadro-plaka gabezia, ikusiezina, ezagutezina, aldatua edo araudiarekin bat ez datorrena | Txirrindularia: 50 CHF<br>Kirol Zuzendaria: 50 CHF txirrindulari bakoitzeko |
| 3.7. Kronometraje edo lokalizazio gailuaren instalazioari, edo ez itzultzeari, uko egitea edo eragozpenak jartzea | Txirrindularia: Irteteko debekua<br>Kirol Zuzendaria: Kanporaketa |
| 3.8. Jantzien jasotze edo entregatze irregularra | Txirrindularia: 50 CHF<br>Kirol Zuzendaria: 100 CHF |

| | |
|---|---|
| 3.9. Euritako desegokia (maillotaren diseinuarekiko ezberdina, edo ez gardena), edo taldearen izenik gabea | Txirrindularia: Ohartarazpena<br>Taldea: Ohartarazpena |
| 4.1. Beste talde bateko lasterkariari laguntza material irregularra ematea | Inplikatutako txirrindulari bakoitza:<br>Kanporaketa eta 100 CHF |
| 4.2. Bat-bateko erreleboak: | |
| 4.2.1. Taldeko kideen artean | Inplikatutako txirrindulari bakoitza: 100 CHF (*) |
| 4.2.2. Kide ez direnen artean | Inplikatutako txirrindulari bakoitza: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa |

(*) *Gainera, Komisarioen Elkargoak inplikatutako txirrindularien kanporaketa edo deskalifikazioa ebatzi ahal izango du, arau-haustea probaren amaieran egin izan denean.*

| | |
|---|---|
| 4.3 Auto, moto edo txirrindulariarekiko/arteko bultzada, publikotik jasotako bultzada iraunduak eta errepikatuak | 50 CHF arau-hauste bakoitzeko |
| 4.4. Zirkuitu amaieran baimenik gabe elkarri laguntzea | Inplikatutako txirrindulari bakoitza: 100 CHF, kanporaketa edo deskalifikazioa |
| 4.5. Proba bere kabuz edo norbaiten laguntza irregularrik gabe amaitu ez duen txirrindularia | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean |
| 4.6. Motordun ibilgailuan edo ibilgailu horretako bidaiariek bultzatutako/atoian eramandako/heldutako batean eutsitako txirrindularia, edo martxan dagoen ibilgailu batetik eginiko bizikletaren manipulazio mekanikoa | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean<br>Gidaria: 100 CHF eta kanporaketa<br>Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna: 100 CHF eta kanporaketa<br>Beste lizentziadun bat: 100 CHF eta kanporaketa<br>Inplikatutako beste norbait: Kanporaketa<br>Ibilgailua: Kanporaketa ordeztua izan ezinik |
| 4.7. Motordun ibilgailuaren atzean babestea edo bere estela jarraitzea | Txirrindularia<br>1. Arau-haustea: 50 CHF<br>2. Arau-haustea: 100 CHF<br>Gidaria:<br>1. Arau-haustea: Ohartarazpena<br>2. Arau-haustea: 100 CHF<br>Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna:<br>1. Arau-haustea: Ohartarazpena<br>2. Arau-haustea: 100 CHF |

*Gainera, Komisarioen Elkargoak txirrindulari arau-hauslearen kanporaketa edo deskalifikazioa eta/edo inplikatutako beste edozeinen kanporaketa ebatzi ahal izango du, errepikatzen diren kasuetan edo zirkunstantzia larrigarrietan.*

| | |
|---|---|
| 4.8. Taldeko autoetako bizikleta ordeztea, asistentzia neutroa, erratz-autoa, edo helburu horretarako prestatutako eremuetatik kanpo | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa |
| 4.9. Gorputza auto barrutik kanpora ateratzea edo bertatik kanpo materiala prestatuta izatea | Gidaria: 100 CHF<br>Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna:<br>1. Arau-haustea: 200 CHF<br>2. Arau-haustea: 500 CHF<br>3. Arau-haustea: 500 CHF eta kanporaketa<br>Beste lizentziadun bat:<br>1. Arau-haustea: 100 CHF<br>2. Arau-haustea: 200 CHF<br>3. Arau-haustea: 500 CHF eta kanporaketa |

| | |
|---|---|
| 4.10. Baimenik gabeko hornidura | |
| 4.10.1. Lehen 30 Km-etan | Txirrindularia: 50 CHF<br>Kirol Zuzendaria: 150 CHF |
| 4.10.2. Azken 20 Km-etan | Txirrindularia: 50 CHF<br>Kirol Zuzendaria: 150 CH |
| 4.11. Hornidura irregularra (bidoi *itsatsia* distantzia laburrean, lekutik kanpoko hornidura, etab.). | Txirrindularia: 50 CHF arau-hauste bakoitzeko<br>Kirol Zuzendaria: 50 CHF arau-hauste bakoitzeko |
| 5.1 Hautatutako korridoretik desbideratzea aurkariak modu irregularren oztopatuz edo haiek arriskuan sartuz eta sprint irregularra (zehazki, beste txirrindulari bati maillota edo aulkia heltzea, beldurraraztea edo mehatxua, burukada, belaunkada, ukabilkada, eskukada, sorbalda, etab. direla medio) | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa |
| 6.1. Txirrindulari edo auto batek borondatez jarritako oztopoak beste lasterkari edo ibilgailu baten aurrerapena eragozteko helburuarekin | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa<br>Beste lizentziadun bat: 200 CHF eta kanporaketa |
| 6.3. Arau-haustea araudi xedapenekiko edo errepideko ibilgailuen zirkulazioarekin lotutako instrukzioekiko, edo komisarioen eta/edo antolatzailearen instrukzioak ez errespetatzea | Gidaria: 100 CHF<br>Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna: 100 CHF<br>Taldeko autoa: Atzerakada azken postura lasterketaren gainerako epean edo kanporaketa<br>Beste ibilgailu bat: Kanporaketa |
| 7.1. Ibilbidetik desbideratzea abantaila lortuz, distantzia osoa estali izan gabe sailkatzeko ahalegina | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean |
| 7.2. Motordun ibilgailu batean igo ondoren probara itzultzea | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean<br>Ibilgailuko gidaria: 100 CHF<br>Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna: 100 CHF<br>Taldeko autoa: Kanporaketa<br>Beste ibilgailu bat: Kanporaketa |
| 7.3. Kanporatua izatea saihesteko adierazpen edo portaera antolatua | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean |
| 7.4. Komisario batek kanporatzea agindu ondoren proba utzi nahi ez duen txirrindularia | Txirrindularia: 100 CHF eta 25 puntu ETxF Sailkapenean |
| 7.5. Ibilbidearen atal bat, edo Helmuga oinez bere bizikleta gabe zeharkatu duen txirrindularia | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa |
| 7.6. Espaloitan, oinezko bidetan edo ibilbidea osatzen ez duten bizikleta erraileta ibiltzea edo zirkulatzea | Txirrindularia: 50 eta 100* CHF artean eta 5 puntu ETxF Sailkapenean |

(*) *Gainera, Komisarioen Elkargoak azken postura atzeratzea edo txirrindulari arau-hauslearen kanporaketa edo deskalifikazioa ebatzi ahal izango du, maniobraren bidez abantaila lortu denean edo errepikatzen diren kasuetan edo zirkunstantzia larrigarrietan.*

| | |
|---|---|
| 7.7. Trenbide-pasagune itxia edo ixten ari dena zeharkatzea (soinu eta/edo ikusmen seinale aktiboak) | Txirrindularia: 200 CHF eta 10 puntu ETxF Sailkapenean |
| 7.8. Iruzurra, iruzur saiakera, talde ezberdinetako txirrindularien artean edo inplikatutako beste lizentziadun edo konplize batekin eginiko hitzarmena | Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa<br>Beste lizentziadun bat: 100 CHF eta kanporaketa |

| | |
|---|---|
| 8.1. Antolatzailearen edo komisarioen instrukzioak ez errespetatzea | Txirrindularia: 50 eta 100 CHF artean<br>Beste lizentziadun bat: 50 eta 200 CHF artean |

8.2.Erasotzea, beldurraraztea, iraintzea, mehatxatzea, portaera desegokia (beste txirrindulari baten maillota edo aulkia heltzea, kaskoarekin, belaunarekin, ukabilarekin, sorbaldarekin kolpatzea, ostikada edo ukabilkada, jendaurrean pixa egitea, etab.), edo lotsagabea edo beste norbait arriskuan jartzen duena erakustea:

| | |
|---|---|
| 8.2.1. Txirrindularien artean edo txirrindulari baten aurka | Txirrindularia: 50 eta 500* CHF artean arau-hauste bakoitzeko eta 10 eta 25 puntu artean ETxF Sailkapenean.<br>Beste lizentziadun bat: 500 CHF eta kanporaketa |
| 8.2.2. Beste norbaitengana (ikusleak barne) | Txirrindularia: 50 eta 500* CHF artean arau-hauste bakoitzeko eta kanporaketa edo deskalifikazio bakoitzeko eta 10 eta 25 puntu artean ETxF Sailkapenean<br>Beste lizentziadun bat: 1000 CHF |

(*) *Gainera, Komisarioen Elkargoak arau-hauslearen kanporaketa edo deskalifikazioa ebatzi ahal izango du, maniobraren bidez abantaila lortu denean, edo errepikatzearen kasuetan edo zirkunstantzia larrigarrietan.*

| | |
|---|---|
| 8.3. Galtzadara edo ikusleriaren eremura objektu bat zuhurtziarik gabe edo modu arriskutsuan botatzea | Txirrindularia edo beste lizentziadun bat:<br>1. Arau-haustea: 50 CHF<br>Errepikatzea: 100 CHF-koa arau-hauste bakoitzeko (Taldea zigortuko da txirrindularia identifikatzea ezinezkoa izan denean). |
| 8.4. Eko-gunetatik (xede horretarako egokitutako eremuak) kanpo hondakinak botatzea | Txirrindularia edo beste lizentziadun bat:<br>1. Arau-haustea: 50 CHF<br>Errepikatzea: 100 CHF-koa arau-hauste bakoitzeko (Taldea zigortuko da txirrindularia identifikatzea ezinezkoa izan denean). |
| 8.5. Beirazko objektu bat eramatea, erabiltzea edo botatzea | Edozein lizentziadun: Kanporaketa eta 50 CHF |
| 8.6. Gizalegezko jokabidea edo lizunkeria (zehazkiago, jendaurrean txiza egitea irteeran, lasterketan, helmugan edo lasterketan zehar, biluztu egitea). | Txirrindularia edo beste lizentziadun bat:<br>1. Arau-haustea: 50 CHF<br>2. Arau-haustea: 100 CHF |

9. Banakako erlojupeko probak

| | |
|---|---|
| 9.1. Komisarioek kontrolatu gabeko bizikleta batekin irtetea | Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa<br>Taldea: 200 CHF |
| 9.2. Bizikleta edo ekipamendua bere kontrolerako ez aukeztea txirrindularia irteteko ordua baino 15 minutu lehenago | Txirrindularia: 50 CHF<br>Kirol Zuzendaria: 50 CHF txirrindulari arau-hausle bakoitzeko |
| 9.3. Araudiko distantziak eta eremuak ez errespetatzea | Txirrindularia: 50 CHF arau-hauste bakoitzeko<br>Taldea: 200 CHF arau-hauste bakoitzeko |
| 9.3.1. Estela | Txirrindularia: 50 CHF arau-hauste bakoitzeko<br>Taldea: 200 CHF arau-hauste bakoitzeko |
| 9.4. Txirrindulariaren atzetik 10 m-ko distantzia errespetatzen ez duen ibilgailu jarraitzailea | Txirrindularia: 20"-ko penalizazioa arau-hauste bakoitzeko<br>Kirol Zuzendaria: 100 CHF arau-hauste bakoitzeko |

# II. ERANSKINA

## COVID-19ren AURREKO XEDAPEN IRAGANKORRAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EGITEN DIREN PROBETAN APLIKATU BEHARREKOAK

*Lehenengoa.- Kontingentzia-plana*

- Covid-19aren sintomarik ohikoenetakoren bat (sukarra, hotzikara, eztula, aire-falta sentsazioa, usaimena eta dastamena txikitu, eztarriko mina, muskuluetako mina, buruko mina, ahultasuna, beherakoa edo botalarria) duen oro bere etxean egon beharko da eta osasun-zerbitzuari jakinarazi beharko dio ahalik eta lasterren.
- Era berean, etxean beste batekin edo batzuekin bizi bada, harreman oro ekidin beharko du eta, ahal dela, gela batean egongo da bera bakarrik osasun-zerbitzuaren jarraibideak jaso arte.
- Covid-19arekin bat datorren sintomatologia hautemanez gero kirol-probaren ondorioz, zeregin horretarako izendatutako osasun-arloko pertsonak edo berariaz izendatuak Osakidetzara igorriko du kasua, osasun publikoko protokoloak ezartzeko.
- Kirolariren batek edo talde teknikoko norbaitek COVID-19 gaixotasuna duela jakinez gero edo gaixotasun horren sintomak izanez gero edo baieztatutako kasu batekin harreman estua izanez gero, berehala jakinaraziko die osasun-agintariei Osakidetzak ezarritako bideak erabiliz eta une oro haren jarraibideak jarraituz.

*Bigarrena.- Irteeran eta Helmugan txirrindularien eta teknikarien pilaketak saihesteko neurriak*

- Proba bakoitzean gehienez ere 200 txirrindularik hartuko dute parte.
- Kirolariek ez dute maskararik eraman beharko beroketak egitean eta lehiatzean ere ez.
- Txirrindulariak Irteerako zonara maskara behar bezala jarrita joango dira eta ez dute kenduko Irteerako Epaileak baimendu arte, irteera neutralizatua hasi baino segundo batzuk lehenago.
- Baimena emandakoan, txirrindulari bakoitzak bere maskara gordeko du; ezingo da lurrera bota edo hirugarren pertsona bati eman.
- Helmugan erakunde antolatzaileak Helmugako Lerroaren ondorengo 50 metroetako (balaztatzeko eremua) sarbidea mugatu egingo du hesiak edo beste bitarteko batzuk erabiliz eta eremu horretan txirrindulariak eta probako langile ofizialak baino ez dira egongo. Dena dela, pertsona hauek ahalik eta denbora laburrena egongo dira zona horretan, pilaketak saihestuko dituzte eta eremua berehala hustuko dute.
- Txirrindulariek izan ezik, gainerako guztiek maskara erabili beharko dute. Txirrindulariek maskara erabili beharko dute zona husten duten une beretik eta ahalik eta lasterren hustuko da zona.

*Hirugarrena.- Bulego iraunkorra / Izen-emateen kontrola*

- Izen-emateen kontrola dagoen tokian Epaimahai Teknikoko burua, Epaimahaiko idazkaria eta taldeko kirol zuzendari bat baino ezingo dira egon; gainerako zuzendariak lokaletik kanpo egon beharko dira, elkarrengandik 1,5 metroko distantziara eta maskararekin.
- **Taldeek eta txirrindulariek posta elektronikoz formalizatu behar dituzte izen-emateak; ETxF-ra bidali behar da mezua, proba hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago.**
- Antolakuntza - Epaimahaia - Kirol zuzendari arteko bilera antolatuz gero, beharrezko distantziarekin jarriko dira aulkiak eta inoiz ez da lokalaren edukieraren %60 baino gehiago beteko.

**2021.02.20**

*Laugarrena.- Ibilgailu jarraitzaileen aparkalekua*

- Erakunde antolatzaileak antolakuntzako ibilgailuentzat, ofizialentzat eta taldekoentzat jarriko duen aparkalekua behar bezain zabala izan behar da, pertsonen pilaketarik egon ez dadin eta pertsonen artean 1,5 metroko distantzia gorde dadin une oro.

*Bostgarrena.- Ibilgailuen okupazioa eta pertsonen garraioa lehiaketan:*

- Ibilgailuen okupazioa eserita joan daitezkeen plazen berdina izan daiteke, baina pertsona batetik bestera ahalik eta distantziarik handiena mantentzen saiatu behar da ahal den guztietan. Ibilgailuan doazenek maskara erabili beharko dute, denak etxebizitza berean elkarrekin bizi ez badira.
- Motozikleten kasuan, eskularruak erabili beharko ditu gidariak eta gidariarekin doanak ere bai, erabilera partekatuko motozikletak badira. Motorzaleen babes-eskularruak onartuta daude kasu hauetan.

*Seigarrena.- Podiuma / Protokolozko zeremonia*

- Podiuma behar bezala egokituta egon beharko da, sariak eta maillotak eman ahal izateko, pertsonen arteko harreman fisikoa ekidingo da, gutxienez 1,5 metroko distantzia mantenduko da (baita podiumeko kaxen artean ere, egonez gero) eta maskara erabiliko da.
- Protokolozko zeremonia ateak itxita egitea gomendatzen da, saritutako txirrindularia(k) eta laguntzaile bat baino ez dira sartuko, osasun neurriak kontrolatzeko erakunde antolatzaileak izendatutako pertsona eta saria emango duenaz gain.
- Taldekako saria hartu behar izanez gero, talde irabazleko pertsona bakarra eta laguntzaile bat joango dira, ekitaldia ateak itxita eginez gero.

*Zazpigarrena.- Auto neutroetatik egiten den hornidura*

Hermetikoki prezintatutako plastikozko botilatxoak baino ez dira baimenduko.

# REGLAMENTO PRUEBAS DE RUTA

**20.02.2021**

**DISPOSICIONES GENERALES**
**Artículo 1**.- La EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA (ETxF), en colaboración con las Federaciones Alavesa, Bizkaina, Gipuzkoana y Navarra, y con los Clubes y Agrupaciones Deportivas adscritos a las mismas, organiza y regula mediante el presente Reglamento los Torneos Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, **Abiatzen**, Euskal-Herria, Gaztetxoak y Euskaldun Femenino, y Campeonatos de Euskadi en Ruta.

**Artículo 2**.- El ámbito de aplicación del presente Reglamento comprende todas aquellas competiciones contenidas en los Torneos de Ruta y Campeonatos de Euskadi en Ruta, que no se encuentren incluidas en el Calendario de la Unión Ciclista Internacional (UCI) o de la Real Federación Española de Ciclismo (RFEC) y a todas aquellas personas o entidades que de una u otra forma participen en estas pruebas. Siendo obligatorio conocerlo, no pudiendo en ningún caso alegar ignorancia de los mismos.

**Artículo 3**.- A excepción de las disposiciones particulares de los Torneos de Ruta contenidas en el presente Reglamento, las competiciones se regirán por analogía a lo dispuesto en los Reglamentos Técnicos, de la RFEC, y en el Reglamento del Deporte Ciclista, de la UCI.

**Artículo 4.-** El Jurado Técnico, en primera instancia, y la ETxF se reservan el derecho de modificar el presente Reglamento y de resolver cuantas situaciones o casos excepcionales pudieran derivarse de la aplicación y/o interpretación del mismo en el ámbito puntual de cada prueba.

# CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA

**DISPOSICIONES GENERALES**
**Artículo 62.-** Los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA, son propiedad exclusiva de la Euskadiko Txirrindularitza Federazioa (ETxF).

**Artículo 63.-** El presente capítulo completa las Disposiciones Generales del Reglamento - Pruebas en Ruta, de la ETxF.

A excepción de lo dispuesto expresamente para los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA, las competiciones se regirán por analogía a lo dispuesto en el respectivo Torneo o Trofeo de cada categoría o género.

A excepción de los Campeonatos de Euskadi en Ruta – Línea, para mujeres, los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA no serán puntuables para Torneo o Trofeo alguno.

## II. MASTER 30, 40, 50 Y 60 DE AMBOS GÉNEROS

**DISPOSICIONES COMUNES: LÍNEA Y CONTRA-RELOJ INDIVIDUAL**
**Artículo 65.-** A excepción de las disposiciones particulares contenidas en el presente documento, los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA, para las categorías Master 30, 40, 50 y 60 - Mujeres Scratch - se regirán por analogía a lo dispuesto en los Reglamentos Técnicos de la Real Federación Española de Ciclismo (RFEC)

Queda totalmente prohibida la atribución de premio en metálico alguno a los corredores participantes. Acaso, y en las condiciones aquí expuestas, únicamente tendrán derecho a los maillots de Campeones, trofeos y/o medallas.

**DISTRIBUCION DE CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA**
Se distribuyen por categorías de la siguiente manera:

- **Master 30**: corredores en cuyas licencias figure la categoría *Master 30*
- **Master 40**: corredores en cuyas licencias figure la categoría *Master 40*
- **Master 50**: corredores en cuyas licencias figure la categoría *Master 50*

- **Master 60**: corredores en cuyas licencias figure la categoría *Master 60*
- **Mujeres Scratch**: corredoras en cuyas licencias figure la categoría *Master 30, 40, 50* ó *60*

**CAMPEONES DE EUSKADI**

Los títulos de Campeón de Euskadi en Ruta, para cada una de las antedichas categorías, están reservados exclusivamente a aquellos corredores de nacionalidad española con licencia de competición expedida por la ETxF o por la Federación Navarra de Ciclismo, y aquellos corredores de nacionalidad española o francesa con residencia en Ipar Euskal Herria y licencia expedida por la Federación Francesa de Ciclismo, entendiéndose por residencia aquélla que figure en su licencia.

**CONDICIONES DE PARTICIPACION E INSCRIPCION**

Además de los corredores señalados en el párrafo precedente, en los CAMPEONATOS DE EUSKADI EN RUTA podrán tomar parte corredores con licencia extendida por cualquier federación afiliada a la Unión Ciclista Internacional, los cuales NO OPTARAN a ninguno de los títulos de Campeón de Euskadi en Ruta.

**DORSALES**

Los dorsales a utilizar por los corredores serán facilitados por el Comité Organizador Local.

**CLASIFICACIONES**

En cada categoría, se establecerá una clasificación conjunta de todos los corredores -sea cual fuere su federación de origen- que concluyan la prueba en el plazo de tiempo fijado reglamentariamente; resultando que el primer corredor clasificado de entre aquellos que cumplan con los requisitos establecidos en el Título 3 del presente capítulo II, devendrá Campeón de Euskadi en Ruta de su categoría.

En todas aquellas categorías –Mujeres Scratch inclusive- en las que no se alcance el número mínimo de 3 (tres) corredores participantes que cumplan con los requisitos establecidos en el Título 3 del presente capítulo II, el título de Campeón de Euskadi quedará desierto.

**CONTRA-RELOJ INDIVIDUAL**

**Orden de Salida**

El Orden de Salida de los participantes será establecido por sorteo en cada una de las categorías

Las salidas de cada corredor se efectuarán con intervalos de un minuto, y será igual para todos los participantes de la misma serie.

**Bicicletas**

Deberán ajustarse a las disposiciones establecidas en el Capítulo III del Reglamento del Deporte Ciclista, de la UCI.

Quince minutos antes de la hora fijada para su salida, cada corredor deberá presentarse provisto de su bicicleta al Juez de Salida para efectuar la verificación de la misma conforme a lo dispuesto en el artículo 2.4.010 del Reglamento del Deporte Ciclista, de la UCI.

**Corredores en carrera**

El corredor que alcanza a otro debe guardar una separación lateral de, al menos, 2 metros.

Después de 1 Km., el corredor alcanzado debe rodar a, al menos, 25 metros por detrás del otro.

**Vehículos seguidores**

Para que un vehículo seguidor pueda acompañar al corredor, deberá estar ocupado por una persona licenciada como Director Deportivo / Monitor del club al que pertenezca dicho corredor.

El vehículo seguidor de un corredor deberá situarse a, al menos, 10 metros del corredor. No puede adelantarle nunca, ni tampoco ponerse a su altura. En caso de avería, la asistencia sólo se autoriza en situación de parada y de forma que el vehículo seguidor no impida o dificulte el paso de otro corredor o vehículo.

El vehículo seguidor de un corredor que va a ser alcanzado debe colocarse detrás del coche del otro corredor a partir del momento en que la distancia entre ambos corredores es inferior a 100 metros.

El vehículo que sigue a un corredor que alcanza a otro no puede intercalarse entre los corredores a menos que entre éstos exista una separación de, al menos, 50 metros. Si esta distancia se redujera, el coche del corredor con mejor tiempo registrado hasta ese momento se situará detrás del segundo corredor y delante del otro coche.

# ANEXO I DEL REGLAMENTO DE PRUEBAS EN RUTA, DE LA EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA (Art. 25)

## DEL CUADRO DE SANCIONES Y PENALIZACIONES DEL REGLAMENTO DEL DEPORTE CICLISTA, DE LA UNIÓN CICLISTA INTERNACIONAL

| HECHOS DE CARRERA | SANCIONES Y PENALIZACIONES |
|---|---|
| 1.1 Salida sin control de firma | Ciclista: 50 CHF y 2 puntos en la Clasificación ETxF<br>Director Deportivo: 50 CHF |
| 1.3. No participar en las ceremonias protocolarias | Ciclista: 200 CHF y supresión de los premios y puntos obtenidos en la prueba.<br>Director Deportivo: 200 CHF |
| 1.4. Usar vestimenta no reglamentaria en las ceremonias protocolarias | Ciclista: 100 CHF<br>Director Deportivo: 100 CHF |
| 1.5. Atravesar la Meta portando el dorsal estando retirado | Ciclista: 200 CHF |
| 1.6. Volver a atravesar la Meta en el sentido de la carrera portando el dorsal | Ciclista: 50 CHF |
| 2.1 Presentación en la salida con una bicicleta no conforme | Prohibición de salida |
| 2.2 Uso en carrera de bicicleta no conforme | Ciclista: Expulsión o descalificación<br>Equipo: 200 CHF |
| 2.3 Uso en carrera de bicicleta no conforme al artículo 1.3.010 (fraude tecnológico) | Ciclista: Expulsión o descalificación<br>Equipo: Expulsión o descalificación |
| 2.4. Uso en carrera de un sistema de comunicación a distancia no autorizado | Ciclista: Expulsión o descalificación<br>Director Deportivo: Expulsión<br>Coche de Equipo: Expulsión |
| 2.6. Evitar, impedir u obstruir un control de material | Ciclista: Expulsión o descalificación<br>Otro miembro del equipo: Expulsión |
| 3.1. No vestir el maillot de líder | *Ver Arts. 32, 45, 53 ó 60.* |
| 3.2. Vestimenta no conforme | Ciclista: Prohibición de salida, expulsión o descalificación |
| 3.3. Ciclista sin casco obligatorio | Prohibición de salida |
| 3.4 Corredor que se quita el casco en el transcurso de la prueba | Expulsión y 50 CHF |
| 3.6. Dorsal, nº de hombro, placa de cuadro, ausente, invisible, irreconocible, modificado o no colocado reglamentariamente | Ciclista: 50 CHF<br>Director Deportivo: 50 CHF por cada ciclista |
| 3.7. Negativa u obstrucción a la instalación, o no devolución, del dispositivo de cronometraje o de localización | Ciclista: Prohibición de salida<br>Director Deportivo: Expulsión |
| 3.8. Recogida o entrega irregular de vestimenta | Ciclista: 50 CHF<br>Director Deportivo: 100 CHF |

| | |
|---|---|
| 3.9. Impermeable no conforme (diferente diseño al maillot, o no transparente), o sin el nombre del equipo | Ciclista: Advertencia<br>Equipo: Advertencia |
| 4.1. Ayuda material irregular a un corredor de otro equipo | Cada ciclista implicado:<br>Expulsión y 100 CHF |
| 4.2. Relevos al vuelo: | |
| 4.2.1. Entre compañeros de equipo | Cada ciclista implicado: 100 CHF (*) |
| 4.2.2. Entre no compañeros | Cada ciclista implicado: 100 CHF y expulsión o descalificación |

(*) *Además, el Colegio de Comisarios podrá resolver la expulsión o descalificación del(os) ciclista(s) implicado(s) en el supuesto de que la infracción haya sido cometida en el final de la prueba.*

| | |
|---|---|
| 4.3. Impulso sobre coche, moto, o/entre ciclistas, empujones prolongados y reiterados recibidos del público | 50 CHF por cada infracción |
| 4.4. Ayuda mutua no autorizada en una llegada en circuito | Cada ciclista implicado: 100 CHF, expulsión o descalificación |
| 4.5. Ciclista que no haya completado la prueba por sí mismo, o sin la ayuda irregular de alguien | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación, y 20 puntos en la Clasificación ETxF |
| 4.6. Ciclista agarrado a cualquier vehículo a motor, o empujado/remolcado/agarrado por un ocupantes de ese vehículo, o manipulación mecánica de la bici desde un vehículo en marcha | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación, y 20 puntos en la Clasificación ETxF<br>Conductor: 100 CHF y exclusión<br>Director Deportivo responsable del vehículo: 100 CHF y expulsión<br>Otro licenciado: 100 CHF y expulsión<br>Otra persona implicada: Exclusión<br>Vehículo: Expulsión sin opción de ser reemplazado |
| 4.7. Abrigo tras vehículo a motor o tomar su estela | Ciclista:<br>1ª infracción: 50 CHF<br>2ª infracción: 100 CHF<br>Conductor:<br>1ª infracción: Advertencia<br>2ª infracción: 100 CHF<br>Director Deportivo responsable del vehículo:<br>1ª infracción: Advertencia<br>2ª infracción: 100 CHF |

*Además, el Colegio de Comisarios podrá resolver la expulsión o descalificación del ciclista infractor, y/o la expulsión de cualquier otro licenciado implicado, en los supuestos de reiteración o circunstancias agravantes.*

| | |
|---|---|
| 4.8. Cambio de bici ajeno a los coches de equipo, asistencia neutra, coche escoba, o fuera de las zonas especificadas a tal fin | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación |
| 4.9. Asomar el cuerpo fuera del habitáculo del coche o tener material preparado fuera del mismo | Conductor: 100 CHF<br>Director Deportivo responsable del vehículo:<br>1ª infracción: 200 CHF<br>2ª infracción: 500 CHF<br>3ª infracción: 500 CHF y expulsión<br>Otro licenciado:<br>1ª infracción: 100 CHF<br>2ª infracción: 200 CHF<br>3ª infracción: 500 CHF y expulsión |

| | |
|---|---|
| 4.10. Avituallamiento no autorizado | |
| 4.10.1. En los primeros 30 Kms. | Ciclista: 50 CHF<br>Director Deportivo: 150 CHF |
| 4.10.2. En los últimos 20 Kms. | Ciclista: 50 CHF<br>Director Deportivo: 150 CHF |
| 4.11. Avituallamiento irregular (bidón *pegado* corta distancia, avituallamiento fuera de zona, etc.) | Ciclista: 50 CHF por infracción<br>Director Deportivo: 50 CHF por infracción |
| 5.1 Desviación de pasillo elegido molestando irregularmente o poniendo en peligro a los rivales, y sprint irregular (en concreto, agarrar del maillot o del sillín a otro ciclista, intimidación o amenaza, cabezazo, rodillazo, codazo, manotazo, con el hombro, etc.) | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación |
| 6.1. Obstrucción voluntaria de un corredor o de un vehículo con el propósito de impedir el avance de otro corredor o vehículo | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación<br>Otro licenciado: 200 CHF y expulsión |
| 6.3. Infracción a las disposiciones reglamentarias o a las instrucciones relativas a la circulación de vehículos en carrera, o no respetar las instrucciones de los comisarios y/o el organizador | Conductor: 100 CHF<br>Director Deportivo responsable del vehículo: 100 CHF<br>Coche de equipo: Retroceso al último puesto durante el resto de carrera, o expulsión<br>Otro vehículo: Expulsión |
| 7.1. Desviarse del recorrido obteniendo ventaja, intento de ser de ser clasificado sin haber cubierto la distancia íntegra | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación, y 20 puntos en la Clasificación ETxF |
| 7.2. Reincorporarse a la prueba tras haberse subido a un vehículo a motor | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación, y 20 puntos en la Clasificación ETxF<br>Conductor del vehículo: 100 CHF<br>Director Deportivo responsable del vehículo: 100 CHF<br>Coche de equipo: Expulsión<br>Otro vehículo: Expulsión |
| 7.3. Manifestación o comportamiento organizado para evitar ser eliminado | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación, y 20 puntos en la Clasificación ETxF |
| 7.4. Ciclista que se niega a abandonar la prueba tras haber sido expulsado por un comisario | Ciclista: 100 CHF y 25 ptos. en la Clasificación ETxF |
| 7.5. Ciclista que haya realizado una parte del recorrido, o haya cruzado la Meta, a pie sin su bici | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación |
| 7.6. Rodar o circular por aceras, caminos peatonales, o carriles-bici, que no forman parte del itinerario | Ciclista: 50 a 100* CHF y 5 puntos. en la Clasificación ETxF |

(*) *Además, el Colegio de Comisarios podrá resolver la desclasificación a la última posición, la expulsión o descalificación del ciclista infractor, si mediante la maniobra se ha obtenido ventaja, o en los supuestos de reiteración o circunstancias agravantes.*

| | |
|---|---|
| 7.7. Atravesar paso a nivel cerrado , o cerrándose (señales acústicas y/u ópticas activas) | Ciclista: 200 CHF y 10 ptos. en la Clasificación ETxF |
| 7.8. Fraude, intento de fraude, acuerdo entre ciclistasde de equipos diferentes u otro licenciado implicado o cómplice | Ciclista: 100 CHF y expulsión o descalificación cada corredor implicado<br>Otro licenciado: 100 CHF y expulsión |

| | |
|---|---|
| 8.1. No respetar las instrucciones del organizador o de los comisarios | Ciclista: 50 a 100 CHF<br>Otro licenciado: 50 a 200 CHF |

8.2.Agredir, intimidar, injuriar, amenazar, comportamiento incorrecto (tirar del maillot, del sillín de otro ciclista, golpear con el casco, la rodilla, el codo, el hombro, patada o puñetazo, orinar en público, etc.), indecoroso o que ponga en peligro a otro:

| | |
|---|---|
| 8.2.1. Entre ciclistas o contra un ciclista | Ciclista: 50 a 500* CHF por infracción y de 10 a 25 puntos en la Clasificación ETxF.<br>Otro licenciado: 500 CHF y expulsión |
| 8.2.2. Hacia otra persona (incluidos espectadores) | Ciclista: 50 a 500* CHF por infracción y expulsión o descalificación y de 10 a 25 puntos en la Clasificación ETxF<br>Otro licenciado: 1000 CHF |

(*) *Además, el Colegio de Comisarios podrá resolver la expulsión o descalificación del infractor, si mediante la maniobra se ha obtenido ventaja, o en los supuestos de reiteración o circunstancias agravantes.*

| | |
|---|---|
| 8.3. Arrojar imprudente o peligrosamente un objeto a la calzada o hacia el público | Ciclista u otro licenciado:<br>1ª infracción: 50 CHF<br>Reincidencia: de 100 CHF por cada infracción<br>(Se sanciona al equipo si no se ha podido identificar al ciclista). |
| 8.4. Arrojar residuos fuera de las ecozonas (zonas habilitadas al efecto) | Ciclista u otro licenciado:<br>1ª infracción: 50 CHF<br>Reincidencia: de 100 CHF por cada infracción<br>(Se sanciona al equipo si no se ha podido identificar al ciclista). |
| 8.5. Portar, utilizar o arrojar un objeto de vidrio | Cualquier licenciado: Expulsión y 50 CHF |
| 8.6. Comportamiento incívico o indecoroso (en concreto, orinar en público en la salida, llegada o a lo largo de la carrera, desnudarse) | Ciclista u otro licenciado:<br>1ª infracción: 50 CHF<br>2ª infracción 100 CHF |

9. Pruebas contra-reloj individual

| | |
|---|---|
| 9.1. Tomar la salida con una bici no controlada por los comisarios | Ciclista: Expulsión o descalificación<br>Equipo 200 CHF |
| 9.2. No presentar la bici o el equipamiento para su control 15 min. antes de la hora fijada para la salida del ciclista | Ciclista: 50 CHF<br>Director Deportivo: 50 CHF por cada corredor infractor |
| 9.3. No respetar las distancias y espacios reglamentarios | Ciclista: 50 CHF por cada infracción<br>Equipo: 200 CHF por cada infracción |
| 9.3.1. Estela | Ciclista: 50 CHF por cada infracción<br>Equipo: 200 CHF por cada infracción |
| 9.4. Vehículo seguidor que no respeta la distancia de 10 m. por detrás con respecto al ciclista | Ciclista: 20" de penalización por cada infracción<br>Director Deportivo: 100 CHF por cada infracción |

# ANEXO II

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS ANTE COVID-19 DE APLICACIÓN EN LAS PRUEBAS QUE SE DISPUTEN EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

*Primera.- Plan de contingencia*

- Cualquier persona que experimente alguno de los síntomas más comunes compatibles con Covid-19, tales como fiebre, escalofríos, tos, sensación de falta de aire, disminución del olfato y del gusto, dolor de garganta, dolores musculares, dolor de cabeza, debilidad general, diarrea o vómitos, deberá permanecer en su domicilio y comunicárselo a su servicio sanitario a la mayor brevedad.
- Igualmente, si existen convivientes en el domicilio, deberá evitar el contacto con ellos y, si es posible, usar una habitación de forma exclusiva hasta recibir instrucciones de su servicio sanitario.
- En caso de detectarse sintomatología compatible con Covid-19 con ocasión de la prueba deportiva, la o el profesional sanitario o la persona designada expresamente para esta tarea, derivará el caso a los servicios de Osakidetza - Servicio Vasco de Salud para la aplicación de los correspondientes protocolos de salud pública.
- Si algún o alguna deportista o alguien del equipo técnico tuviese conocimiento de que está sufriendo la enfermedad COVID-19 o tiene síntomas compatibles con la enfermedad o es contacto estrecho de un caso confirmado, lo comunicará de inmediato a las autoridades sanitarias a través de los medios establecidos por el Servicio Vasco de Salud - Osakidetza, siguiendo en todo momento sus indicaciones.

*Segunda.- Medidas para evitar aglomeraciones de ciclistas y técnicos en Zonas de Salida y Meta*

- El número máximo de ciclistas participantes en cada prueba se fija en 200.
- Los y las deportistas estarán exentos del uso obligatorio de la mascarilla en el momento del calentamiento y la competición exclusivamente.
- Los y las ciclistas deberán acudir a la Zona de Salida con la mascarilla debidamente colocada, y no retirársela hasta que el o la Juez de Salida les autorice a ello, unos segundos antes de dar la salida neutralizada.
- Recibida la autorización, los y las ciclistas podrán guardar la mascarilla cada cual la suya; estando prohibido arrojarla al suelo o entregársela a terceras personas.
- En la Zona de Meta, la entidad organizadora limitará el acceso a los 50 metros siguientes a la Línea de Meta mediante vallas u otros medios (área de frenada); y cuidará de que únicamente permanezca y transite por este área los y las ciclistas y el personal oficial de la prueba. Sea como fuere, todas estas personas permanecerán el mínimo tiempo posible, evitando las aglomeraciones y evacuando el área inmediatamente.
- A excepción de los y las ciclistas, todas las demás personas deberán usar la mascarilla. Los y las ciclistas estarán obligados al uso de sus mascarillas desde el preciso instante en el que, a la mayor premura, desalojen el área.

*Tercera.- Oficina Permanente / Control de inscripciones*

- En el espacio para el control de inscripciones, únicamente podrán permanecer el o la Presidenta del Jurado Técnico, el o la Secretaria del Jurado, y un Director Deportivo de equipo; el resto de Directores deberán aguardar fuera del local, manteniendo entre sí la distancia interpersonal de 1,5 m. y utilizando la mascarilla.
- **Los equipos y ciclistas deberán formalizar sus inscripciones mediante correo electrónico dirigido a la ETxF con al menos 48 horas de antelación a la prueba.**
- En el supuesto que haya de ser convocada una reunión de Organización - Colegio de Comisarios - Directores Deportivos, las sillas deberán ubicarse guardando la distancia necesaria entre sí y nunca se podrá superar el 60% del aforo del local.

**2021.02.20**

*Cuarta.- Parking de vehículos seguidores*

- La entidad organizadora preverá que el parking de acceso exclusivo a vehículos de la organización, oficiales y de equipos, sea lo suficientemente amplio para que no se produzcan aglomeraciones de personas y en todo momento pueda mantenerse la distancia física interpersonal de al menos 1,5 m. entre ellas.

*Quinta.- Ocupación de vehículos y transporte de personas en la competición*

- Los vehículos podrán ocuparse hasta completar el aforo máximo en plazas sentadas, procurando que las personas mantengan entre sí la máxima distancia posible cuando sea posible. Las y los ocupantes deberán hacer uso de mascarilla cuando no todos ellos convivan en el mismo domicilio.
- En las motocicletas, además, el uso de guantes será obligatorio por parte del pasajero y también por parte del conductor en el caso de motocicletas destinadas al uso compartido. A estos efectos, serán admitidos los guantes de protección de motoristas.

*Sexta.- Pódium / Ceremonia protocolaria*

- El Pódium deberá estar debidamente acondicionado para poder llevar a cabo las operaciones de entrega de trofeos y maillot, evitando todo contacto físico entre las personas, manteniendo la distancia física de 1,5 m. mínimo entre ellas (incluidos cajones de podium entre sí, si los hubiere), y el uso de mascarilla.
- Se recomienda la realización de la Ceremonia protocolaria a puerta cerrada, con acceso limitado al o la ciclista premiado y un acompañante, la persona designada por la entidad organizadora para el control de las medidas preventivas sanitarias y la persona que vaya a entregar el premio.
- Para la recogida del premio por equipos si lo hubiere, una sola persona del equipo vencedor; y un acompañante por parte del equipo si la ceremonia fuera a puerta cerrada.

*Séptima.- Avituallamiento desde los Coches Neutros*

- Únicamente autorizado mediante botellines de plástico herméticamente precintados.